



GAZTEEN KULTURA DIGITALAREN AZTERKETA:
SOZIALIZAZIOAN ETA HEZKUNTZA AFEKTIBO-
SEXUALEAN DITUEN ONDORIOAK, IKUSPEGI
FEMINISTATIK

2024ko ekainak 25, 26



Sarrera

2024ko ekainaren 25ean eta 26an, «Gazteen kultura digitalaren azterketa, sozializazioan eta hezkuntza afektibo-sexualean dituen ondorioak ikuspegi feministatik» ikastaroa egin zen Donostian, Emakundek antolatuta, UPV/EHUreren Udako Ikastaroen testuinguruan. Guztira 98 pertsonak eman zuten izena jardunaldi horietan, formatu bikoitzean, aurrez aurre eta online, aurreko edizioetan bezala.

Programaren gaiak eragile guztiak inplikatzeko dituzten hainbat dimentsiotan, eta desberdintasun ikusgarriak nahiz ikusezinak kontuan hartzea behar du. Desberdintasun horiek gazteen sozializazioari zuzenean eragiten dion errealitate konplexu bati heltzeko estrategiak birpentsatzeko balio behar dute.

Belaunaldi berrien sozializazioan kultura digitala ardatz nagusi gisa sartu da, eta aldaketa oso sakonak eragin ditu gizartean, kulturen eta teknologian. Hori dela eta, ondoriozta genezake egungo gazte-belaunaldiak *millenialen* edo *boomer*en belaunaldien oso bestelako errealitate bat bizi dutela.

Belaunaldi guztiak bereizten dira aurrekoetatik, baina Z belaunaldiak eta ondorengoek are abiada biziagoan egin dute aldaketa hori, eta horrek ulermen-zailtasun handiak dakarzikie bizi-esperientzia erabat desberdinak dituztenei, eszeptizismoa edo ezjakintasuna direla eta. Aurreko belaunaldien begirada analitikoan *heldukeria* eta *neofobia* gailentzen direnez, zailagoa da belaunaldi berriak ulertzea, baina ezinbesteko erronka da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortuko bada: ulertzea da aurretiko urratsa, esparru digital horretan berdintasunerantz elkarrekin aurrera egiteko sortzen diren aukerak baliatu ahal izateko.

Azterketa harreman afektibo-sexualetan ardaztu da, pornografiak eragin handia baitu horietan, baita sare sozialetan, sozializatzeko bitarteko gisa, eta kontsumo digitaleko edukietan ere, hala nola telesailak edo bideojokoak.



Helburu nagusi horri jarraikiz, Udako Ikastaroari esker, gazteek mundu digitalean duten errealitate sozialaren funtsezko elementuak aztertu ahal izan dira; mundu hori berehalakotasunak eta aldaketaren azkartasunak ezaugarritzen dute.

Helburuak hauek dira:

- Gazteen hezkuntza afektibo-sexualaren egungo errealitatea ezagutzea eta pornografiaren kontsumoari eta sexu-indarkeria —batez ere mundu birtualean— naturalizatzeari buruz hausnartzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien eremuan emakumeen ahalduntzea errazten duten eta arrakala digitala murrizten duten estrategiak edo ekimenak identifikatzea.
- Ikuspegi feministatik aztertzea misoginiak nola eragiten duen mundu digitalean.
- Programan, gazteekin berdintasunaren arloan lan egitera bideratutako aurkezpenak, eztabaidak eta ekimen arrakastatsuen azalpenak izan dira, eta mutil gazteekin lan egitera zuzendutako ikuspegi zehatza izan du, hezkidetzan oinarritutakoa.

Laburpen honen helburua ez da ikastaroan partekatutako edukiak zehatz-mehatz islatzea; programa xehetasunez kontsultatzeko, Emakunderen webgunera jotzea gomendatzen dugu (<https://www.emakunde.euskadi.eus/uda-ikastaroak/webema01-contentform/eu/>), bertan jasotzen baitira egileek eskainitako edukiak.

2024 | 06 | 25

ISA DUQUE

Psikologian lizentziaduna Granadako Unibertsitatean, Sexologia, terapia sexuala eta generoa eta Familia-terapia sistemikoa masterrak Al-Ándalus Sexologia Institutuan. 2005ean, ikerketa-lanari ekin zion, eta aukera-berdintasunari eta sexualitateei buruzko tailerrak egiten hasi zen; era berean, hainbat erakunde eta kolektiborekin lankidetzan aritu zen nerabeei, emakumeei, hezkuntza-komunitateari eta psikologiako eta sexologiako profesionalei zuzendutako programetan.

2015ean, La PsicoWoman kanala sortu zuen YouTube plataforman, gazteek osasun emozionalari eta generoari buruz dituzten premiei erantzuteko. Hortik aurrera, sare gehiago eta, batez ere, interakzio askoz gehiago, eduki hezitzaileekin eta genero ikuspegiarekin. Duela bi urte, Acercarse a la generación Z. Una guía práctica para entender a la juventud actual sin prejuicios liburua argitaratu zuen, eta gaur ezagutzen lagunduko digu.

Hitzaldiaren izenburua: **TENDIENDO PUENTES A LA GENERACIÓN Z**

Gorputzaren «luzakin» batekin jaio dira, hots, telefono adimenduna. Horrek ez du laguntzen belaunaldi bat bestearengandik bereizi duten oztopoak gainditzen. Kosta egiten zaigu egungo gazteei nola lagundu jakitea, hots, Z belaunaldiari (1994-2010), haien unibertsoak eta harremanak izateko moduak asko eta oso azkar aldatu direlako. Eta, hala ere, badakigu ezinbestekoa dela laguntzea, ikuspegi ireki eta zintzoarekin, besteak beste, indarkeria matxistak prebenitzeko eta tratatu onak sustatzeko, ikuspegi gaurkotu eta heldukeriarik gabeko baten arabera.



Z belaunaldiak haren gaineko estereotipoak hutsaltzen ditu egunez egun. Belaunaldi anitza eta konprometitua da, eta haiengana hurbiltzeko esperientzia propioa balia dezakegu, «ahul» agertzeko beldurrik izan gabe, gure ahultasuna konexioa eta hurbiltasuna sortzeko baliabide gisa hartuz.

Oso hedatuta dauden uste batzuen aurrean, egileak defendatzen du Z «aurkitutako belaunaldia» dela, eta gai dela oso testuinguru bortitzetan sozializazio-bide propioak aurkitzeko.

Jaio zirenetik krisi sistemikoak bizi izan dituzte; hortaz, prekaritatea ezagutu dute nagusiki, eta beren bizitza ziurgabetasunaren sokaren gainean oreka mantentzean datza. Bizimodu autonomo bat izateko aukera izango balute, soldataren % 90 alokairua ordaintzera bideratu beharko lukete. 10etik 4k uste dute aurreko belaunaldia baino okerrago biziko direla, eta 4tik 1 haurtzaro prekario baten ostean iritsi da nerabegarora; alegia, haurren pobrezia pairatuta. Historian liburu gehien irakurtzen duen belaunaldia ere bada, substantzia toxiko gutxien kontsumitzen dituen eta bizimodu osasungarriak izateari garrantzi handiena ematen diona, besteak beste, elikaduraren eta jarduera fisiko erregularraren bidez. Oro har, beste belaunaldi batzuek baino gehiago errefusatzen dute sexismoa, eta indarkeria matxistak neurri handiagoan hauteman eta salatzen dituzte.

Duquek belaunaldi honi buruz ditugun usteak gure gaztaroko esperientzietatik abiatuta birpentsatzeko gonbita egiten digu; aitortu behar dugu bizitzaren etapa hori aurreko belaunalditik «aldentzeko» garaia dela.

Nerabezaro oro desberdina den arren, gaur egungoa da denetan anitzena, eta, oro har, ulertze-arrakala nagusia hura aztertzeko darabilgun heldukeriazko kanpoko begiradatik dator. Adinetik eratorritako botere-desberdintasun horrek haurtzaroaren eta gazteriaren aurkako diskriminazioa, zapalkuntza eta gutxiespena dakartza, eta, gainera, bestelako botere-desberdintasunek eta ekitaterik ezek blaituta dago, zeinak hauetan oinarritzen baitira: generoa, etnia, desgaitasun funtzionala, lodifobia, sexu-orientazioa, genero-identitatea eta -adierazpena, maila sozioekonomikoa eta abar.



Konstante historiko bat da: aurreko belaunaldiek, beren ikuspegitik, hurrengoek ekarpenak, ezaugarriak eta desirak gutxiesteko eta epaitzeko joera dute.

Begirada imperfektu hori onartuz, Isa Duquek errealitateari INTERSEKZIONALITATETIK begiratzera eta aniztasuna ulertuz haien bidelagun izatera gonbidatzen gaitu. Orain arte, modu oso eskasean lagun egin diegu, batez ere belaunaldi honen sozializazio-modua goitik behera aldatu duen arlo teknologikoan. Ez dira *natibo digitalak*, baizik eta *umezurtz digitalak*: oso azkar aldatzen den mundu digital batean jaio dira, eta beren kabuz ikasi behar izan dute, inolako zaintza digitalik gabe.

Z belaunaldia laguntza gutxien jaso duen belaunaldia da (prekarizazioa, denbora falta, zaintzaren deshumanizazioa...), eta, hala eta guztiz ere, beren garapenerako oso kaltegarriak diren egoerei aurre egiteko kodeak eta erantzun bakarrak sortzea lortu dute. Gazteek betidanik behar izan dutena bilatzen eta behar dute: entzunak izatea, baliozkotzea, traumarik edo beldurrik ez transmititzea eta aitorpena egitea.

Amaitzeko, Isa Duquek haiekin konexioa sortzera gonbidatzen gaitu, izan ere, hala soilik egin ahal izango ditugu aldaketak. Ildo horretan, adierazten du

haiengana hurbiltzeko gakoa interesa dela, eta heldukeria alde batera uztea:

- Beren erreferenteen gauzak eskuratzea
- Ezagutza, gaitasun eta trebetasunetan prestatzea.
- Zintzoak izatea, prestasuna izatea, eta pazientzia eta umorea izatea
- Erreferente positibo bat izatea
- Nork bere zamak onartu eta barruan daramaguna aitortzea
- Gure sinesmenak, balioak eta erreferentzia-sistema berrikustea
- Zer jaso dugun, zer falta izan zaigun eta gabeziak nola integratu ditugun jakitea

ELISA GARCIA MINGO

Elisa Garcia-Mingo akademikoa da, eta irakasle doktore kontratatua da Soziologia Sailean: Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Zientzia Politikak eta Soziologia Fakultateko Metodologia eta Teoria,1.

Soziologia Saileko irakasle doktore kontratatua: Metodologia eta Teoria (UCM). Unibertsitateen Ministerioak finantzatutako DIVISAR (Digitalización de la Violencia Sexual) (2022-2025) ikerketa-proiektuaren ikertzaile nagusia da; Unibertsitate Konplutentseak finantzatutako DIVISAR UCM (Violencia Sexual Digital entre la Juventud Universitaria) (2022) ikerketa-proiektuaren ikertzaile nagusia da; eta Masculinidades Juveniles: procesos de construcción identitaria y percepciones de la violencia de género (2022-23) Nerabezaroa eta Gazteria ikertzeko Reina Sofía Zentroak gidatutako proiektuaren koordinatzailea da UCMn. UCM Kultura Digitala eta Gizarte Mugimenduak Ikerketa Taldeko kide da, eta Centre for Transforming Sexuality and Gender-eko (Brightoneko Unibertsitatea) kide elkartua da.

Honako unibertsitate hauetan ikertzaile eta irakasle gonbidatu gisa aritu da: Alberto Hurtado Unibertsitatea, Txileko Unibertsitate Katolikoa, McGill University, Brightoneko Unibertsitatea, Aarhus Universiteit, Colegio de México eta Florentziako Unibertsitatea. Bi liburu eta 50 argitalpen zientifiko baino gehiago idatzi ditu, liburu-kapituluetan eta aldizkari akademikoetan.

Hitzaldiaren izenburua: MANOSFERA: JÓVENES EN LA MANOSFERA: INFLUENCIA DE LA MISOGINIA DIGITAL EN LA PERCEPCIÓN QUE TIENEN LOS HOMBRES JÓVENES DE LA VIOLENCIA SEXUAL

Azken bost urteotan mugimendu feministak sekulako arrakasta soziala eta instituzionalizazioa lortu ditu, baina une honetan atzerakada antifeminista bat bizitzen ari gara; alegia, mugimendu feministak eta LGBTI mugimendua gizonentzako mehatxutzat hartzen dituen izu moralean oinarritutako diskurtso bat.



«Negazionismo» antifeminista hori oso presente dago eremu publikoan, eta gazteengan sakon sartu da. Hitzaldian zehar, hizlariak diseinu kualitatibo-multietnikotik abiatuta egindako ikerketa baten ondorioak aurkeztu ditu. Ikerketa hori, oso-osorik, online bideratu da, eta adituei egindako elkarrizketak, etnografia digitaleko prozesu bat, eztabaida-taldeen fase bat eta gizonesferaren memeen azterketa bat konbinatu ditu.

Ikerketa honek argi egiten du gizonesferan sortzen diren diskurtso antifeministen sorreraren, konfigurazioaren eta ugalketaren inguruan. Interneteko komunitate misoginoak dira, eta emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren gizarte-pertzepzioaren konfigurazioa baldintzatzen dute.

Gizonesfera funtsezko elementua da gazteen genero-sozializazioan, izan ere, espazio digitaletan kontzeptualizatzen dira diskurtso politiko antifeministak (indarkeriak ez duela generorik, genero-indarkeria asmakizun ideologikoa dela eta antzeko ideiak). Gizonesferaren funtsa ulertzeko, azterlanak aukera ematen du azpikulturak kartografiatu eta kokatzeko, eta, hortik abiatuta, bi ardatz dituen mapa bat eskaintzeko: alde batetik, komunitate horiek jokabide misoginoei ematen dieten babesa, eta, bestetik, norbanakoen jarrerak, antolaketa- eta politika-gaitasunari kontrajarrita. Ikerketa honen bidez, diskurtso misogino berriak sortzeari eta Interneten misoginia sendotzeari erantzungo dieten beste sozializazio-eredu batzuekin batera lan egingo duten profesionalak prestatzen lagundu nahi da.

- Publiko espezializatuari gizonesferaren definizioak eta kontzeptualizazioak ematea
- Espainiako gizonesferaren izaerari eta ezaugarriei buruzko ikerketa enpiriko batean oinarritutako informazioa ematea
- Internetek emakumeen eskubideen aurkako eduki misoginoak hedatzeko zenbateko gaitasuna duen ulertzea.

- Generoan oinarritutako indarkeria desagerrarazteko zailtasunak gainditzeko estrategiak elkarrekin pentsatzea, gazteekin eta publiko orokorrarekin lan egiteko.

2018az geroztik, nazioarteko erreakzio kontserbadore bat sortu da, generoaren eta feminismoaren aurkakoa, feminismoa gizonezkoen etsaia delako ideian funtsatua. Ez da erreakzio isolatu edo indibidualizatu bat, eta nahikoa ebidentzia daude *gurutzada antifeminista* gisa definitzeko: finantzaketa, antolaketa eta programa politikoa ditu, eta feminismoaren proiektu politikoa desagiteko asmo argia du.

Gizonesfera azpikultura digital misoginoen multzo bat da, konspirazio-teoria antifeministek elikatutako diskurtso misoginoek ezaugarritzen dutena.

Besteak beste, honako hauek daude espektro honetan: sedukzioaren guruak; beren bideari jarraitzen dioten gizonak; gizonen eskubideen aldeko aktibisten taldeak (ideologotzat dute beren burua, beren entzuleak baino helduagotzat, eta alderdi politikoekin transmisio-uhak gisa jarduten dute); nahi gabeko ezkongabeak (sexu-kontratua hausteari erantzute aldera); youtuber antifeministak, Forocoches eta Hispasexy, *kripto* munduari lotutako inguruneak, *gymbro* deritzenak eta prostituzio-ingurune eta -foroak.

Guztiek ala guztiek ezaugarri hauek dituzte: antifeminismoa eta misoginia

- Biktimismo maskulinoa, sufrimendua eta galera-sentimendua.
- Gizonezko zurien pribilegioa berrezartzeko eta maskulinitasun hegemonikoa indartzeko helburu komuna.
- Gizonari beste esanahi bat ematea, eta feminismoaren eta justizia sozialeko beste aurrerapen batzuen biktima gisa agertzea. Horretarako, genero-estereotipoak betikotu, genero-indarkeria legitimatu eta gorroto-diskurtsoak zabaltzeko diskurtsoa eta praktikak baliatzen dituzte.



Txertatzen diren azpikultura desberdinen araberako maskulinitate-ereduak proposatzen dituzte, baina guztiek izendatzaile komun bat dute: emakumeen erruz errealtatu ezin izan duten potentzial maskulinoa aldarrikatu eta proposatzea (ondoezetik abiatuta).

Gizonesfera funtzionala da gazte askorentzat; izan ere, kontsolatzeko eta loturak sortzeko espazio bat topatzen dute bertan, eta feminismoari buruz eztabaidatzeko espazioak sortzen dituzte eta beste indarkeria batzuk gauzatzeko antolatzen dira.

Egileak defendatzen duenez, funtsezkoa da feminismotik gizonesfera hackeatzea, tekno-kultura toxikoak sustatzen laguntzen duelako, emakumeen aurkako espazioak sortzen dituelako eta *troll* kultura sustatzen duelako. Hori guztia oinarri hartuta, emakumeen aurkako indarkeriei buruzko negazionismoa sendotzeko tresna nagusia da eta, hala, justizia sozialaren eta berdintasunaren aldeko itun inplizituarekin haustea bultzatzen du.

Beraz, gizonesferaren aurreko erantzuna taxutu behar da, kontuan hartuta maskulinitate zartatua berrezartzeko espazioak direla, eztabaida publikoa polarizatzen dutela eta eduki antifeminista sortzen dutela.

Diskurtso antifeminista dimentsio afektibotik egituratzen dute: gizonentzat utilitaristenak diren emozioak indartzera bideratuta daude, haien ustetan feminismoak kendu dien zer bat xede dutela. Ondorioz, pedagogia antifeminista egiteko gune bat dira, eta oihartzun-kamerak sortzen dituzte, bai ideologikoak, bai afektiboak, eta horietan elkartzen eta indartzen dira.

Feminismotik emandako erantzuna arazoaren dimentsio intelektualean zentratu da, eta estrategia diskurtsibo feministak baliatu ditu horretarako, baina ez gara dimentsio afektiboan berdin ardatsu; hala egiten badugu, ulertuko dugu gizonesferan aurkitzen dutela kontsolamendu emozionala, eta horrek lotura duela troll-politikarekin. Ez dugu ahaztu behar gizonesfera negozio bat dela, konexio emozionalak elikatzearen bidez jende askok diru asko lortzen duen espazio bat.



Hori guztia dela eta, egileak dio gizonesfera sintoma dela: gainerako agerpenak (umiliazioaren kultura, kultura tekno-toxikoa, etab.) ikertzeko aukera ematen digun tresna kultural bat. Ikuspegi hori bereziki garrantzitsua eta premiazkoa da gaur egun, aukera teknologiko berriak iritsi dira eta (adimen artifizialaren garapenari lotutako aplikazioetan taldekatu ditzakegunak). Aukera horiek ekintza irmoago eta egituratuago batera eraman behar gaituzte, etorkizun digital feminista bat bermatzeko, emakumeentzat segurua dena eta indarkeriarik ez duena.

LAURA ALMENARA BOLUDA

Feminismo en 8 bits - Dibulgetzailea

Sare sozialetan bideojokoei eta generoari buruz dibulgetzen du begirada feminista batetik, eta Haur Hezkuntzako irakaslea da.

Laura gamer ezagun bat eta @feminismoen8bits kontuan eduki-sortzailea da, non bideojokoetako indarkeria matxista aztertzen baitu. Gainera, sustatzaile soziokulturala da eta Hezkuntzan graduatuta dago.

Hitzaldiaren izenburua: YOUTUBE Y VIDEOJUEGOS COMO ELEMENTO SOCIALIZADOR

Bideojokoak kultura digitalaren adierazpen argi bat dira. Egungo gazteek erreferentziak eta espazioak aurkitzen dituzte haietan, elkarrekintzarako eta nortasuna garatzeko eredu propioak sortzeko. Bideojokoen narratibek ikus-entzunezko kulturaren gainerako elementuekin batera eboluzionatu dute azken urteotan, eta, gaur egun, lehen mailako agente sozializatzaileak dira.

Donostian, hizlariak ikuspegi paregabe bat eskaini zuen bideojokoei ziberindarkeriari nola lagundu diezaioketen eta arazoari ikuspegi feministatik nola heldu diezaiokegun azaltzeko.



Zinemaren inguruko ikerketatik abiatzen den analisi feminista oso baliagarria da bideojokoak aztertzeko, narratiba berberak dituztelako iturri (Laura Mulvey: *Placer visual y cine narrativo*, 1975) eta ezaugarri komunak partekatzen dituztelako.

Produktu kultural gisa, garaiaren emaitza dira, eta eraikuntza soziokulturala islatu ez ezik, horretan ere parte hartzen dute. Interakzioan oinarritutako tresna bat denez, funtsezko prestakuntza- eta hezkuntza-gaitasuna dute ezagutza, ideiak, gizarteko arazoak, balioak eta abar transmititzeko.

Gainerako kultura-esparruetan bezala, matxismoak bideojokoetan ere eragina du, eta ohiko estrategiak zabaltzen ditu bertan, besteak beste, hauek:

- Pertsonaia femenino hiper sexualizatu, estereotipatu eta kosifikatuak eraikitzea.
- Subjektua eta objektua elkarrengandik urruntzea. Gizonaren begiradapean garatzen da proposamen narratiboa.
- Emakumeen gorputza zatikatzea (enkladaketak pertsonaia femeninoaren posizioa zehazten dute). Kosifikazio sexualizatu, menderatzea eta urratzea. Bideojokoaren teknologiak emakumearen gorputz-atalak begiratzeko aukera ematen du.
- Hipersexualizatzea eta pornifikatzea.
- Ikusezin bihurtzea. Istorioak kontatzen dituzten % 80 baino gehiago gizonak dira.
- Estereotipo kaltegarriak errepikatzea. Emakume pasiboak, babesgabeak, behar narratiboa asetzeko soilik agertzen direnak (*bestetasuna*)

Ezaugarri horiek nabarmenak dira bideojokoen ekoizpen- eta kontsumo-kate osoan zehar, eta online kontsumoan are gehiago nabarmentzen dira. Egileak emakume jokalarien aurkako hainbat eta hainbat jazarpen kasu ikertu ditu, ingurune horietan mantendu ahal izateko babes-estrategiak garatu behar izan dituztenak.

Hitzaldiaren izenburua: **PROYECTO LA PSICOWOMAN** (ISA DUQUE)

Isa Duquek, jardunaldiaren amaieran, «La Psicowoman» proiektua sortzean eta garatzean izandako esperientzia nolakoa izan zen azaldu zuen. Gazteekin lan egiteko plataforma bat da, eta batez ere Youtube eta Instagram baliatzen ditu.

Psicowoman delako pertsonaiak gazteenek erabiltzen dituzten kodeak erabiltzen ditu «kontrainformazioa» emateko: sexologia «genero-ikuspegia txertatuta, patriarkatuaren ereduak errepikatzen ez dituen».

Proiektua 2015ean hasi zen eratzen, eta gazteengana sozializazio-tresnak erabiliz iristeko helburua zuen, estrategia politiko gisa, tailerretan eta prestakuntza-espazioetan berekin lan egiten duten gazteak dauden espazioan esku hartzeko. Gazte hizkera erabiliz, beti musikaz eta dantzaz lagunduta eta modu umoretsuan, kalitatezko kontrainformaziorako gune bat eskaini nahi du estereotipo sexistaz eta emakumeen aurkako indarkeriaz betetako mundu birtual batean.

«Amor del bueno, Disney y maltrato», «Amor, rayadas y límites», «El clítoris... ¡¡Ese gran desconocido!!», «Toda la información que no nos dicen sobre la píldora anticonceptiva», «Sin un SI es NO» edo «Los machos también lloran» dira, besteak beste, YouTubeko kanalean ikus ditzakezun bideoetako batzuk. Bertan, gazteek eskatzen duten informazioa modu argi eta zuzenean eskura dezakete, engainurik gabe.

Gazteek kontsumitzen dituzten edukien karga sinbolikoa orekatzen eta, aldi berean, gizarte-aldaketak islatzen dituzten kontzientzia-, pedagogia- eta aktibismo-espazioak garatzen lagunduko duten erreferenteak eskaintzeko beharragatik jotzen du ingurune horretara: online eta offline esperientzien hibridazioa.



Lan-metodologia irmo lotuta dago entzute aktibora: neska-mutilei erantzutea eta haien kezak, balioak, beldurrak, kodeak eta erantzuteko estrategiak islatzea; izan ere, haien gainean oker orokortutako iritzia gorabehera, belaunaldi aktibo eta kontzientea dira, *mainstream* hedabideetan agertzen ez diren eduki positibo asko sortzen dituenak. Ildo horretan, bere plataforma erreferentziazko alternatibei ahotza emateko espazioa ere bada.

MÓNICA ALARIO GAVILAN

Generoaren Diziplinarteko Ikasketetan Nazioarteko Doktorea. Sexu-indarkerian eta pornografian aditua, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren Lehen Saria jaso du, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko 2020ko doktore-tesiengatik emana, eta, duela gutxi, 2024ko Comadre de Oro saria ere eman diote.

2021aren amaieran Política sexual de la pornografía. Sexo, desigualdad, violencia argitaratu zuen (Cátedra argitaletxearen Feminismos bilduma). Azken urteetan, ehun hitzaldi baino gehiago eman eta esku-hartze asko egin ditu, besteak beste, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak gonbidatutako aditu gisa parte hartu du 2022–2025 Indarkeria Matxistei aurre egiteko Estatu Estrategia sortzeko kontsulta-prozesuan; Europako Parlamentuko Feminist Forumean ere aritu da, Bruselan, 2022an.

Hitzaldiaren izenburua: **POLÍTICA SEXUAL DE LA PORNOGRAFIA**

Pornografia belaunaldi berrien «heziketa sexuala» bilakatu da. Kontraesankorra dirudi, zentzuzkoa baita galdetzea zer neurritan esan dezakegun *heziketa* edo *sexuala* dela. Fenomeno hori aztertzean, galdera asko sortzen dira: zertan bereizten dira sexua eta sexu-indarkeria? Zergatik hartzen da sexutzat indarkeria horren parte bat? Nola da posible gizonak sexualki berotzea emakumeen eta nesken aurkako indarkeria ematen den egoeretan? Ba al dakigu gazteengan zer ondorio dituen pornografia eta sexua parekatzeak? Mutilengan? Neskengan?



Hitzaldian galdera horiek jorratzen dira, sexualitate maskulinoa nola eraikitzen den ulertzeko, zeinak pornografia erotizatzea ahalbidetzen duten zutabeak jartzen baititu. Ikerketaren bidez, pornografiak gizonengan zer sexu-desira mota eraikitzen duen ulertzen laguntzen digu, bai eta eraikuntza hori zer neurritan ari den emakumeen aurkako indarkeriak ugaltzen laguntzen ere, bereziki emakume gazteenen aurka.

Egileak defendatzen duenez, gure bizitzak sexu-indarkeriez blai daude, eta horietako asko sozialki kontzeptualizatu gabeak dira, edo minimizatuta edo naturalizatuta daude. Pornografian erantzun asko aurkitzen ditugu azterketa-gabezia zabalenak ulertzeko.

Egileak defendatzen du pornografia dela sexuaren eta sexu-indarkeriaren arteko bereizketa ezabatzen duen mekanismo sozial eta politikoetako bat.

Hizlariaren arabera, galderarik garrantzitsuena da zeri esaten diogun *askatasun*: baiezkoa edo ezezkoa emateko gaitasuna, desira edo berdintasuna. Erantzun horietatik abiatuta, sexua eta indarkeria bereizten dituen lerroa ezarri ahal izango dugu.

- Sexua: elkarrekikotasuna (desira eta desiratik datorren baiezkoa)
- Sexu-indarkeria: ez dago elkarrekikotasunik (ez dago desirarik eta desiratik datorren baiezkorik)

Terminoen arteko kontraesan hori (oximorona) normalizatu egin dugu, *adingabekoekin sexua* modu akritikoan aipatzen dugunean gertatzen den moduan.

Maskulinitasuna, generoa den aldetik, eraikuntza kultural bat da, eta, hortaz, ez dago arrazoi naturalik desparekotasunerako; aitzitik, mekanismo sozialak dira desberdintasun natural horiek desparekotasun bihurtzen dituztenak, oinarritzko araua oinarri hartuta: maskulinitasuna femeninitasunaren kontrakoa eta gainetik dagoena



da. Mezu hori modu bereziki argian transmititzen da haurren artean. Txikitatik finkatzen da desparekotasunerako oinarria.

Historian zehar, gizonek hainbat mekanismo erabili dituzte botere-eskema hori ezartzeko, zeinak feminismoari esker higitzen ari baitira. Pribilegioak galdu ahala (gizonesfera aztertzean ikusi dugunez, gizon askok eskubidetzat jotzen dituzte), pornografiaren kontsumoa hazi egin da, izan ere, horrelako espazioetan soilik dute botere-nagusitasuna.

Desparekotasunetik indarkeriaraino *continuum* bat dago. Zaila da desparekotasuna eta indarkeria bereiztea, minimizatu ohi dugun fase sotilago batzuetan hasten den bidea delako, eta ez garelako kontziente gainerako adierazpideei eusten dieten zimenduak osatzen dituztela

Egilearen arabera, pornografia gizonezkoentzat nagusitasun-harremana mantentzen saiatzeko eremu pribilegiatua bihurtu da, bi funtzio betetzen baititu: alde batetik, desirak / plazer fisiko-sexuala asetzeko eremua da, eta, bestetik, boterea indartzekoa.

Gizonen desirak egiatan beharrianak direla onartzen badugu, desira bera eskubide bihurtzen da, emakumeen gorputzen bidez gauzatzekoa. Eztabaida hori modu irekian azaltzen da pornografian: botere-espazio bat da, eta bertan gizonek emakumeen gorputzera iristeko duten eskubidea egikaritzen da, beren desirak asetzeko, zeinak premiatzat jotzen baitira.

Egilearen arabera, pornografiak filosofia patriarkaletik edan du mende luzez. Emakumeak eta neskak desira maskulinoa asetzeko objektuak dira; hori dela eta, modu deshumanizatuan agertzen dira, ez dutelako garrantzirik ez haiek ez eta haien desirak edo baiezkokoak. Mugak ez errespetatzea da pornografiak gizonezkoen boterea indartzeko erabiltzen duen estrategia politikoetako bat. Funtzio argi bat du: gizonezkoaren boterea eta beroaldia handitzea.



Pornografiak sexu-indarkeria sendotzen duten estrategiak darabiltza behin eta berriz, hala nola emakumeen “sasi-ezezkoak” (emakumeak itxura egiten du ez duela nahi, baina egiatan nahi du, edo desiratzen dago), sexu-indarkeriaren erotizatze zuzenekoa (emakumeen sufrimendua erakustea, kontsumitzaileen enpatia indargabetua nabarmentzen duena), etab.

Horregatik guztiagatik, egileak defendatzen du zalantzan jarri behar dugula pornografia sexu esplizitua besterik ez dela pentsarazi digun eraikuntza soziala. Ulertzen badugu pornografia, berez, gizonek lortu nahi duten boterearen eta nagusitasunaren eszenatokia dela, zigorgabetasunaren eremu horri gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanaz mintzatuko den diskurtso politiko eraldatzaile baten bidez hel diezaiokegu.

Hitzaldiaren izenburua: *NIÑOS Y HOMBRES: ¿QUÉ PIENSAN Y CÓMO ACTUAN?*

JOSEBA GABILONDO MARQUÉS

Hiruki Larroxa

Talde-fazilitatzailea eta formatzailea. Harremanak, botere dinamiken kontzientzia eta elkar ulertzen ez garen momentuetan elkar-zaintza nola ezarri ikertu eta praktikatu du. Ikasketez informatikaria eta Gizarte Hezitzailea izateaz gain, herrigintzatik ere asko ikasitakoa da; gazte mugimenduak, euskalgintza, ekologismoa, feminismoa eta sexu-askapena mugimenduan aritua. Azken lau urteetan Hiruki Larroxan dihardu, parekidetasuna eta LGBTI+ gaietan eta gehien bat gizonen despatriarkalizazioan eta talde gatazken fazilitazioan zentratuta.

Beste bat hainbat eragilerekin batera, ikastetxeetan gazteekin pedagogia feministarekin begiradatik egiten diren esku-hartzeen inguruan ikertu du eta eraldatu beharra dagoela ondorioztatu da.

Gaur egun neska eta mutilen artean, orokorrean, gaian polarizazio handia dago eta gehien bat mutilen artean jarrera antifeminista eta patriarkaletara jotzeko joera nabarmendu da. Hezkuntzatik egiten diren esku-hartzeetan transmititzen diren diren edukietan, erabiltzen diren metodologietan eta abarretan, estrategia-aldaketa aldarrikatzen du, orain artekoak fruituak eman dituen arren, erronka eta egoera berriak ulertuta, eraldaketara jo beharra nabarmendu da.

Orokorkerietan erori gabe bada ere, zenbait zantzu komun aztertu dituzte. Esate baterako, neskak indartsu eta ahaldunduta dauden bitartean (aktibista dira eta feminismoaren iturrietatik edaten dute bizitza eta balore-sistemak eraikitzeko) mutilak defentsa-egoeran, feminismoak ustez ezarri dizkien desabantailen aurrean blokeoan eta gero eta gehiago, kontrako jarreran. Urrea har esanda, beraz, polarizazio handia sumatzen da eta horrek egoera gatazkatsuak areagotu ditu.



Mutilei ez zaie alternatiba askorik eskaini mezu nagusien aurrean, eta galeraren diskurtsoak kontra-erreakzioak eragin ditu, baina balizko irabazien gaineko narratiba falta da. Hori horrela, eskuin muturra da deserosotasun hori politikoki kapitalizatzen ari da eta hortik, besteak beste, gizonesferaren hazkundera eta zabalpena.

Hizlariaren arabera, deserosotasun horretan feminismotik zer ekarpen egiten duen aztertu behar da eta osatu egin behar dugu gure lan-tresnak, besteak beste, hurbilpen arrazionala eta emozionala uztartuz. Arrazoitik eragiten ari gara (balioetatik eta abar) eta hori nahitaezkoa da ere, osatu egin behar dugu alderdi emozionaletik, besteak beste, frustrazioaren kudeaketa egiten.

Aldiko aldiko interbentzio puntualak ez dira nahikoak: eskoletara sartzen diren erraztaileak arrotzak gara, alde z aurreko konplizitatea eta loturarik gabe iristen dira eta oso denbora gutxi dute, eta horrek bereziki zailtzen du jarrera ezkorra edo aktiboki erasokorra duten mutilekin.

Aurrera begira, jardun-estrategiak konplexutu egin behar dela defendatu du eta besteak beste, ondoko esparruak nabarmendu ditu:

- Eztabaida ez sinplifikatu, horrek polarizazioa hauspotu egin duelako.
- Jardun-espazioak zabaldu: mutilekin maskulinitateak eta neskekin autodefentsa soilik lantzen baditugu, pertsona ez bitarrekin lan egiteari uko egiten diogu eta gainera, guztiak elkartzeko aukerak murriztu egiten ditugu.
- Kaleko estrategiak eta eskola-estrategiak ez dira beti bateragarriak izango, baina zertan baztertzaila izanik ere ez dute. Guztiak ukitu behar dira.
- Adinaren araberako estrategia, edukiak, kontzeptuak eta metodologiak landu behar dira.
- Erreakzioa gertatzen denena, une kritikoa del onartuta, aukera erabili behar da estrategia birpentsatueko: jarrerak, edukiak eta metodologiak. Diskriminazioa eta indarkeria momentuak ere erabili behar dira pedagogikoki eragin positiboa bilatzeko.
- Kanpo-eragileen parte hartzea aztertu eta alternatibak landu.

- Irakasleen formazioan sakondu, pedagogia feministan eta talde-dinamikatan, betiere ahaztu gabe irakasleak eurak ere pasa behar dira auto-azterketatik.

Hitzaldiaren izenburua: **NIÑOS Y HOMBRES: ¿QUÉ PIENSAN Y CÓMO ACTUAN?**

MIGUEL ÁNGEL ARCONADA MELERO

Miguel Ángel Arconada Melero Gaztelania eta Literaturako katedraduna da Jorge Manrique Institutuan (Palentzia). UNEDeko Los malos tratos y la violencia de género. Una visión multidisciplinar masterreko irakaslea da, Hezkuntza eta komunikabideak modulukoa. Salamancako Unibertsitateko Genero Indarkeria Aztertze eta Prebenitzeko Diziplinarteko Masterreko irakaslea ere bada, bai eta online modalitatean ere, Hispanoamerikarako: Publizitatea eta genero indarkeria moduluaren arduraduna da.

Urteetan zehar, irakasleak prestatzeko irismen handiko proiektu bat garatu du mota guztietako antolakundeekin Espainian, Portugalen, Mexikon, Bolivian eta Perun. Honako hauek izan ditu ardatz: genero-indarkeriaren hezkuntza-prebentzioa, hezkidetzaren ardurakidetzaren azterketa kritikoa, lidergoaren atzean dagoen sexismoa, eta berdintasunezko, zaintzarekin ardurakideak diren eta desparekotasunen aurka doazen maskulinitateak sustatzea

Nesken eta Emakumeen Hezkuntzako UNESCO 2019 Saria da, SKOLAE programak emana. Programa horren egilekidea, aholkulari teknikoa eta prestatzailea izan zen, eta 2021 CLAVICO (Claustro Virtual de Coeducación) Saria jaso zuen, hezkidetzarekin duen konpromisoagatik.

Une honetan, hezkidetzaren aurkakotasuna ikasgeletara iritsi da; gaur egun ikasle pasiboak ez ezik, berdintasunezko oinarritzeko printzipio batzuk eta

maskulinitatearekiko mezu kritiko batzuk aurkaratzen, interpelatzen eta ezeztatzen dituzten ikasleak ere baditugu. Ez da fenomeno isolatu bat, maskulinitate areagotu baten berrarmatze-estrategia nazioartekotu eta hiperfinantzatu baten emaitza bat baizik, konplexurik gabeko matxismo bat luzitzekoa, zeinaren ondorioz ikastetxeetan taxu berriko biktimismo maskulinoaren presentzia sumatzen baitugu.

Egilea kezkatuta dago mutilek hezkidetzarekiko duten ikuspuntuarekin, baina, aldi berean, adierazten du funtsezkoa dela gogoan izatea ondo ari ginela egiten, eta, hain zuzen, hori dela eta berraktibatu dela erreakzioa.

Egoera horrek erronka gehigarri bat planteatzen du: ikuspegiarekin asmatzea, ikasleekin egindako zenbait lan-ildok defentsiban jartzea eragiten baitute. Ikasleak motibatzeke, emakumeen mina ez da nahikoa izan aldaketarako motor gisa; izan ere, ikasleak emakumeen aurkako indarkeria fisikoaren aurka agertzen dira, baina ez berdintasunean eta elkarrekikotasunean oinarritutako harremanen eraikuntzaren alde. Biolentzia ez izatea ez da berdinzalea izatea bezain exigentea, eta arreta honako honetan jarri behar da: zenbateraino naiz berdinzalea? Zergatik kostatzen zait berdinzalea izatea? Zer egin behar dut hori lortzeko?

Mutilei gizonesferan entzuten dutena ondo sentiarazten dituelako gustatzen zaie; aitzitik, feminismotik egiten dugun proposamena deserosoa da, eta ikasgeletan argi eta garbi ikusten da: biktimizazio-prozesua puntu neutro batean egotetik aurkakotasun-erreakzioa sortzera igaro da. Gero eta gehiago dira ikasgelan beren maskulinitatea defendatzeko esku hartzen dutenak, feminismoak (ustez) inposatzen dien ereduaren aurkako erreakzio gisa.

- Emakumeek gehiegizko boterea dutela salatzen dute, eta beren oinarritzko pribilegioa (boterea bera) kentzen ari zatzaizkiela. Hortik abiatuta, uler dezakegu «feminismo on bat» egon zelako diskurtsoa, orain gainditu egin dena, halako moldez, non feminismoa interpretatu eta aurkaratu egiten duten, nagusiki orain arte maskulinitzat jotzen zituzten espazioetan: bideojokoetan, futbolean, etab.

- Sentitzen eta adierazten dute feminismoak susmagarriak eta errudunak sortu dituela harreman afektibo-sexualetan, eta erreakzio artifizial bat dela. Muineraino matxismoa sartuta dutenek ikasgeletan ahotsa dute, erabili egiten dute, haien sozializazioaren funtsezko eredua defendatzen dute, eta sexua behar eta eskubide dutela, orain nahi bezala ase ezin dutena. Gizonak ideia honekin hezi dituzte: EZEZKOA jasota ere negoziatu daitekeela.
- Errealitate digitala errealitatearekin konektatuta ez dagoen bigarren maila bat izango balitz bezala bizi dute (hori dela eta, indarkeria digitala hutsaltzen dute), eta prostituzioa sexualitaterako alternatiba baliagarritzat hartzen da berriz ere.

Onartu behar dugu gizonezkoen aldaketa ez dela beren baitan sortu, aitzitik, emakumeek sortutakoa izan dela, eta horrek hainbat mailatako erreakzio emozionalak ekarri dituela. Ez dugu pentsatu behar taldean ahots bakar bat dagoela, eta funtsezkoa da mutilen taldeen uniformetasuna haustea, arrakalak irekitzea (taldeari iritzia eta ahotsa ematea, ideia horiek sor daitezen). Matxismoak desberdintasuna zelatatzen du, eskolak espazio segurua izan behar du.

Egileak defendatzen du krisian dagoena ez dela nortasun maskulinoa, haren gailentasuna baizik, eta, beraz, estrategiak desikastera eta aldi berean ikastera bideratu behar direla: nor naiz ez banaiz gailena? Zer ikasi behar dut berdintasunean elkarbizitzeko? Zein pribilegiari uko egiteak sentiarazten nau deseroso? Nola ikasiko dut ezezkoa kudeatzen? Mutiko bat eraikitzen ari den gizaki bat da, eta askoz garrantzitsuagoa da berdinzaleak izaten hezteak biolentzia izateari uztea baino.

Oro har, esan daiteke % 20 dagoeneko aurkaratzaileak direla. Halakoekin, aurrea hartu behar da, eta hortik kontra egin, asertiboak eta estrategikoak izanik. Arconadaren esanetan, gizonesfera baliabide didaktiko bat izan daiteke eta erreakzio horiek erabiltzeko erabil dezakegu. Mezu hori iritsi da eta erreplikatzeko ari da; beraz, ezin dugu alde batera utzi.

Bestalde, % 75 maskulinitatea konplizea da; ulertzen du zer eraldaketetan dagoen, baina erabakiak hartu behar ditu. Haiekin berandu gabiltzala onartu behar dugu,

dagoeneko bestelako mezuak jaso baitituzte. Funtsezkoa da beste erreferente batzuk bilatzea, batez ere egoera problematikoen aurrean; ikus ditzagun erreakzionatzeko beste modu batzuk.

DELICIA AGUADO PELÁEZ

Aradia kooperatiba.

Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea da, eta ikerketa sozialean aritzen da Aradian. Aradia kooperatiba autogestionatu bat da, akademiaren eta gizartearen arteko espazio bat, gure gizarteak birpentsatzea helburu duena gizarte-eraldaketa bilatuz. Bere ikerketaren ildo nagusia ondo islatuta dago bere doktorego-tesian («Cuando el miedo invade la ficción. Análisis de Perdidos (Lost) y de otros quality dramas de la era post 11S»), bai eta beste hogeita hamar bat argitalpenetan ere (aldizkari espezializatuetan eta lan kolektiboetan).

Bere lan kolektiboen artean, Patricia Martínez-Garcíarekin batera eginiko «Series de la Resistencia. Diversidad en la televisión estadounidense frente al trumpismo Readuck, 2022» eta «Desmontando la cultura de la violación en la ficción audiovisual» gida nabarmentzen dira.

Hitzaldia lan honetan oinarritzen da, film eta telesailen bidez sexu-indarkeriaren mitoak esploratzeko gida honetan.

Hitzaldiaren izenburua: DESMONTANDO EN LA FICCIÓN AUDIOVISUAL LA CULTURA DE LA VIOLACIÓN

Filmak eta telesailak ez dira denbora-pasarako objektuak bakarrik, testuingurua, gure gorputzak eta beste pertsona batzuekin ditugun harremanak ulertzeko modua moldatzen laguntzen digute. Hortik, besteak beste, eraikitzen dugu desira, maitasun eta sexualitatearen gaineko ikuspegiaren zati handi bat, eta, zoritxarrez, sexu-



indarkeria normalizatu ere egiten dugu, bereziki emakumeen eta disidentzien aurkakoa. Fikzio horietako askok bortxaketaren kulturaren mitoak indartzen dituzte, sexu-indarkeria justifikatzen edo ikusezin bihurtzen dutelako.

Beste fikzio-eredu batzuk ere badaude, ikuspegi kritiko baten alde egiten dutenak — eta, askotan, feminista—, joera hori hausteko eta baiezekoan eta desiran oinarritutako kultura bat eraikitzen laguntzeko.

Fikzioak munduaren gaineko begirada bat islatzen, erreproduzitzen eta eraikitzen du. Balioak eta mundu-ikuskerak muinetaratzen ditu eta gure kulturaren funtsezko errituak birsortzen ditu.

[Esteka](#) honen bidez kontsulta daitekeen gidak begirada analitiko bat eskaintzen du fikzioaren gaitasun horren atzean dauden mekanismoak ulertzeko, bai eta identifikazio-elementuak, berrikuspen kritikoa eta kontsumo-eredu akritikoa alderantzikatzen duten estrategiak aurkitzeko ere.

Gida hau gure gizarteak sexu-indarkeria nola normalizatzen, hutsaltzen edo justifikatzen duen azaltzean ardazten da, batez ere emakumeen aurkakoa¹. Bortxaketaren kultura, hura sostengatzen duten mitoak eta antzeko kontzeptuak aztertzen ditu, eta horiek filmetan eta telesailetan nola islatzen diren.

Gidak bi narratiba mota aztertzen ditu:

- Bortxaketaren kultura sostengatzen duten mitoak (bir)sortzen dituztenak, sexu-erasoak justifikatuz.
- Baiezekoan oinarritutako kultura bat eraikitzen laguntzen dutenak, hainbat modutan.

Gainera, besteak beste, gidak honako galdera hauek planteatzen ditu: zer da bortxaketaren kultura? Zer mitok sostengatzen dute? Zer eragin dute mito horiek filmetan eta telesailetan? Zer narratibek birsortzen dute bortxaketaren kultura? Ba al da harekin hausten duen produkziarik? Nola egiten dute? Zer egin dezakegu bortxaketaren kultura gainditzeko eta adostasunaren kultura baterantz bideratzeko?



Gida hau bortxaketaren kultura zer den eta fikzioan zer eragin duen (bir)pentsatu nahi duen orori zuzentzen zaio¹. Nahiz eta irakasleentzat zuzenduta egon (prestakuntza arautukoa edo arautu gabekoa, formala edo informala), bereziki banakako eta taldeko hausnarketak gidatzeko tresna gisa dago pentsatuta.